



Torreauzoko Elazarra

Holakotxe itxuria eukan, orain dala hirurogei bat urterarte, San Pedro edo Torreauzoko **Elazarra** baserrixak. Indalezio Ojaguren, Eibarreko erretratista famauak, 1930 aldera ataratako argazki honetan badira elementu interesgarriak: esaterako, harlosaz egindako **larrain zabala**; **burdi klasikua**, zurezko tririnka tringuaz eta burdiñazko llantaz; **ira-pillia** eta **abar luziak** horma kontran; txirikordautako urritzez moldautako **hesixa** ezkerraldian; edota egurrezko **mahats-parriaren** hasieria erztian.

Etxe honetako bizilagunen aittamenak aspaldikuak dittugu: **Araotz-Lazarraga** familixa ospetsukuak ziran; auzo bereko Lazarraga eta Garibaitarrekin batera ganboatarren bandoko buru nagusixenetakuak Erdi Aruan eta baitta geruago be. **Etxeaundi** (edo Etxandi, gure gurasuak esaten euen moduan) zan Lazarragatarren sortetxia; **Elazarra**, Araotz-Lazarragatarrena; eta **Garibaiko Torria**, Lazarraga-Garibaitarrena. Alkarren senidiak ziran eta hiruren artian klan indartsua sortzen euen. Onduan daguen baserrixari be Lazarraga Azpikua esaten xakon sasue batian.

Jatorrizko etxiak torretxiak izango ziran, seguruenik, eta gerora **baserri-tankeria** emun otsain. Garibaiko Torriak gorde dau zahar itxura gehixentsuen. Leiñu horreittakuak Oñatiko kalera eta beste herri batzuetara zabaldu ziran XV-XVI. gizaldittik aurrera. Araotz-Lazarragatarren **bi egoitza** ekuain kalia: **bata Patrue kalia eta bestia plazan**, orain Pago Uso alkartia daguen inguruan; Patrue kalekuak zutik irauten dau eta etxe-ertzian Elazarrako baserrixan daguen armarritzarraren antzerakua dako; plazakua palazio dotoria ei zan, jesuitten kolejixua eta beste gauza asko egon ziran bertan, eta 1850 aldera eretsi euen, plaza nagusi barrixa egin zanian.

Araotz-Lazarragatar jauntxuak kalerako bidia hartu baeuen be, baserri moduan jarraitu euen Elazarrak. **Han bizi izan dira familixa horretako beste adar batzuetakuak** jeneraziño askotan. Hori bai, abizenak aldatuaz fan dira azkenengo gizaldittan: **Araotz, Otalora, Maiztegi, Elortza** eta **Irizar**, bestiak beste. Fotografixa haundixan agiri dan gizakumia **Frantzisko Elortza** da, **Patxi Elazarra**; burtiunian jasarritta daguen mutikotxua **Juanito Oñate** (?) da, baserri horretan hazittako donostiarra eta familixa tarte-kua zan; eta erdiko balkoian ikusten dan emakumia **Maria Elortza** izan leike, Patxiren arrebia.

J. E.